

Badugu

AUKERA

Vamos
hacia el cambio

Info

Lan eta bizi DUINAK LANGILEAK BABESTU KRISIA KAPITALAK ORDAIN DEZALA!

UZTAILAREN 7, 8 ETA 9an GIPUZKOAKO OSTATUEN SEKTOREKO GREBA EGUNAK

Ostatuen hitzarmeneko negoziazio mahaiaren azken bileraren ostean, argi geratu da patronalak ez duela sektoreko ia 2000 langileen lan-baldintzak duinduko dituen akordiorik bilatu nahi. Jarrera honekin, ez dago beste aukerarik; mobilizazio zikloa ezinbestekoa da.

Aldarrikapenen taulak 22 puntu dauzkan arren, patronalak bi baino ez ditu aintzat hartzen; soldatak eta solairuetako zerbitzarien ratioak. Era berean, batetik, beheranzko joerarekin negoziatu nahian ari da 25C. Artikulua, zeinak dion ERTE kasuetan langileen soldatak osatu behar direla arautzen duen, eta, bestetik, kontratu finko ez jarraitu partzialak Langileen Estatutuak arautzen duenaren azpitik erregulatu nahian dago.

Hau da patronalaren azken eskaintza:

- 2020:0
- 2021:0
- 2022: % 3,3
- 2023: % 3
- 2024: KPIa, % 2ko mugarekin

Pisuetako zerbitzarien departamenturako ratio batzuk ezartzeari dagokionez, patronalak ez du arautu nahi hotel bakoitzeko izarren arabera.

Patronalaren proposamena onartezina da datuek argi adierazten baitute sektorea ustekabeko erritmoan hazten ari dela. Pandemiaren aurreko eta etengabeko hazkundeko urteetan baino okupazio handiagoa, hotel berriak irekitzea eta logelen prezioak gora egitea. Datu horiek izanda, egun, duela 3 urte baino langile gutxiago dago sektorean. Hori dela-eta, argi geratu da sektorean enplegua suntsitu dela eta patronalak langile gutxiagorekin lan gehiago egitea nahi duela. Honaino iritsi gara!

Funtsezkoa da bizitzaren garestitzearen eta KPIaren igoeraren aurrean, gutxienez langileen erosteko ahalmenari eustea ahalbidetuko duten soldata-igoerak adostea eta pisuetako zerbitzarien sailerako ratio batzuk ezartzea, kolektibo horren ustiapenarekin amaitzeko. Izan ere, hotel batzuetan, langileek 19 logela egin behar izaten dituzte lanaldiko. Ez da kasualitatea sail hau sektore osoko feminizatuena izatea.

LAB sindikatuak ez du onartuko turismoari jarritako alfonbra gorriaren azpian sektoreko langileak kondentzen dituzten prekaritatea ezkututzen saiatzea.

Kalera irten eta bizitza duina izatea ahalbidetuko duten lan-baldintzen alde borrokatzeko unea da.

